

05

GIRO-BALDINTZAK: BEROA, HOTZA ETA
TENPERATURA-ALDAKETAK


OHIKO ARRISKU-EGOERAK



- ❑ Kaleko lana (eraikuntza, lorezaintza, bideen garbiketa, mantentze-lanak, nekazaritza, etab.).
- ❑ Beroa sortzen duten sukaldeak, garbitegiak eta prozesu industrialak.
- ❑ Hotz-ganberak eta giro hotzetako lanak.
- ❑ Aire-korronteekiko edo bat-bateko tenperatura-aldaketekiko esposizioa duten postuak.
- ❑ Giro bero edo hotzetan ahalegin fisikoa eskatzen duten lanak.
- ❑ Estalkietako, teilatueta edo eguzki-erradiazioaren eraginpean dauden espazioetako lanak.
- ❑ Aireztapen eskasa edo klimatizazio desegokia duten espazioak.

LANTOKIAN IKUS DAITEZKEEN
ALERTA-ELEMENTUAK

- ❑ Beroak, hotzak edo konfort termikorik ezak eragindako kexak.
- ❑ Itzalik gabeko lan-eremuak, klima-babesguneak edo atsedeneleku egokiak.
- ❑ Erraz iristeko moduko edateko urik ez izatea.
- ❑ Bero-kolpeak, zorabioak, nekea edo deshidratazioa.
- ❑ Sentsazio termikoa areagotzen duten arropa edo NBEak erabiltzea.
- ❑ Tenperatura-alde nabarmenak lan-eremuen artean.
- ❑ Beren kabuz ingurumen-baldintzak aldatzen saiatzen diren langileak (haizagailu partikularrak, arropa gehigarria, etab.).
- ❑ Estres termikoko gertakari errepikatuak.

GENEROAREKIN LOTUTAKO
FAKTORE BEREIZGARRIAK

- ❑ NBEak eta laneko arropa ez daude beti eskuragarri plantilla osoarentzat egokiak diren tailuetan edo diseinuetan.
- ❑ Zeregin edo postu jakin batzuek beroarekiko edo hotzarekiko esposizio handiagoa izan dezakete, lanbide-segregazioaren ondorioz.
- ❑ Baliteke arriskuen ebaluazioak plantillaren benetako aniztasuna adierazten ez duen langile-profila erreferentziatzen hartuta egin izana.
- ❑ Haurdunaldiko eta edoskitzaroko babes-premiak kontuan hartu behar dira muturreko tenperaturen eraginpean daudenean.
- ❑ Diferentzia fisiologikoei eragina izan dezakete beroarekiko eta hotzarekiko erantzunean.



05

GIRO-BALDINTZAK: BEROA, HOTZA ETA
TEMPERATURA-ALDAKETAKADINAREKIN LOTUTAKO FAKTORE
BEREIZGARRIAK

- ❑ Langile zaharrenek tolerantzia txikiagoa izan dezakete muturreko temperaturekiko, eta suspertze motelagoa, esposizio luzeen ondoren.
- ❑ Adinarekin ohikoagoak diren gaixotasun kroniko edo tratamendu mediko batzuek beroaren edo hotzaren aurreko kalteberatasuna areagotu dezakete.
- ❑ Termikoki kaltegarriak diren inguruneetan fisikoki zorrotzak diren lanek gainkarga handiagoa eragin dezakete adineko pertsonengan.
- ❑ Langileen zahartzea kontuan hartu behar da prebentzio- eta antolaketa-neurriak planifikatzean.
- ❑ Bereziki sentikorrek diren kolektiboen beharrak kontuan hartzea.

LLO-RAKO GALDERA

Nork du zailtasun gehien beroarekin edo hotzarekin lan egiteko?

OINARRIZKO PREBENTZIO-ORIENTABIDEAK



- ❑ Beroaren eta hotzaren eraginpean egotea bereziki ebaluatzea.
- ❑ Lan-ordutegiak eta erritmoak egokitzea, ingurumen-baldintzak txarrak direnean.
- ❑ Edateko ura eta atsedenleku egokiak izatea bermatzea.
- ❑ Langileen ezaugarrietara egokitutako laneko arropa eta NBEak ematea.
- ❑ Bereziki sentikorrek diren kolektiboen ezaugarriak kontuan hartzea.
- ❑ Muturreko temperaturak gertatzen direnean, aldian-aldian prebentzio-neurriak berrikustea.
- ❑ LLOri kontsulta egitea prebentzio-neurrien plangintzan.
- ❑ Muturreko temperaturen aurrean berariazko protokoloak ezartzea.



Pertsona guztiek ez diote berdin erantzuten beroari edo hotzari. Prebentzio eraginkorrak langileen benetako aniztasuna hartu behar du kontuan, eta prebentzio-neurriak kalteberenak izan daitezkeen beharretara egokitu behar ditu.